



ESKI IRTEERA ALTO CAMPOORA

MARTXOAREN 12AN DBH1ETIK AURRERAKO IKASLEENTZAT

Laudio Ikastolak **Alto Campoora** eskiatzera joateko egun bateko irteera antolatu du Ikastolen Elkarteko Zirimola aisialdi taldearekin elkarlanean.

Txangoa **martxoaren 12** rako programatu da. Irteera goizeko 06:30ean izango da eta Laudiora bueltan heltzeko ordua 19:30ean.

Partaideek eskiatzeko arropa eroso, aldatzeko arropa eta bazkaria eraman beharko dute.

Ekintzak **100 euroko kuota** izango du eta barne izango ditu **forfaita, baliabide materialak, 2 orduko prestakuntza euskaraz, aseguruak, hezitzaileak eta garraioa.**

AURRETIKO IZEN-EMATEA

Aurretiko **izen-ematea martxoaren 2a arte** burutu ahal izango da ondorengo formularioan.

Ekintza aurrera ateratzeko **gutxienez 25 partaide beharko dira.**

izena eman 

Gutxienerako kopurua ziurtatutakoan izena eman dutenek konfirmazio mezua jasoko dute emandako posta elektronikoko kontuan eta **gizarte seguratzako txartelaren kopia idazkaritzara helarazi** beharko dute.

Kuotaren **kobraketa** Ikastolako **martxoko erreziboaren** bidez burutuko da.



BAJA IRIZPIDEAK

Martxoaren 3a (hau barne) baino lehen jakinarazitako bajei **ez zaie kobratuko.**

Martxoaren 4tik (hau barne) aurrera ondorengo **baja irizpideak** aplikatuko dira:

-%90a ez da kobratuko (hau da, %10a kobratuko da) ondorengo kasuetan, beti ere, agiri baten bidez frogatuta: A) gaixotasun edo istripua, medikuaren frogagiria behar da. B) Joatea eragozten duen ustekabeko edo beharrian larria, beti ere justifikatuta badago.

-Baja aurreko arrazoiengatik ez bada, kuotaren %80a kobratuko da.